

ERDI-AROKO ARTE EDERRAK EGO-EUSKALERRIAN

MANUEL LEKUONA

(Udarako Unibertsidade Iruña'n (1978))

Izen onen pean emanik daukat nik itzaldi luze samar bat, orain urte bi, Donostia'n, Jesuitak EUTEGE izenez an duten Ikastola ederrean: ARTE MEDIEVAL EN EL PAIS VASCO MERIDIONAL: «Erdi Aroko Arte Ederrak Ego-aldeko Euskalerrian»: konkretuki: «Arte pre-románico en el País Vasco».

Itzaldiaren izenak arridura pixkaren bat sortu zuan ikasle-jendearen artean. «Arte pre-románico»? Romanikoa ere oxta-oxta aitortzen bait digu zenbaitek, zenbait Arkeologok. Nafarroa'n eta Araba'n, bai, oparo. Bañan Bizkai'an eta Gipuzkoa'n, Romanikoa bera ere oxta-oxta aitortzen, eta «pre-Romanikoa»? ots: Bisigotikoa edo Mozarabea?. . .

Itzaldi artan nik ordu bi opa nizkion gai oni; eta naiko garbi agertu nuan, ez Romanikoa bakarrik baita Pre-Romanikoa ere aitortu bear zaiola Euskalerriri: bete-betean Nafarroa'ri eta Araba'ri, eta naiko argi baita Gipuzkoa'ri eta Bizkai'ari ere.

Orra nere tesisa, gai ontan: NAFARROA'N ETA ARABA'N BA DAGOLA PRE-ROMANIKORIK; ETA ZERBAIT GUTXIAGO, BAÑAN «APUR-APUR» BAÑO GEIXEAGO BAITA BIZKAI ETA GIPUZKOA'N ERE.

Tesis au argitzeko, ordea, ezaguerak, elemenak edatu, zabaldu bear ditugu; ideaiak argitu: zer aditzera eman nai dugun, *Erromanikoa* esaten degunean, eta zer, *Euskalerrria* esatean.

MUGAKIZUNAK

Euskalerrria, lurralde bat da; «bañan lurralde onek ez ditu beti neurri ta muga berak izan» nion nik orduan eta diot orain ere. Leen gaur baño neurri zabalagoak eta luzeagoak izan ditu.

Gaur Espaiña-aldetik Euskalerrriak lau zati auek ditu: Nafarroa, Bizkai'a, Araba eta Gipuzkoa; eta Frantzia-aldetik, iru auek: Nafar-behera, Laburdi eta Zuberoa. Eta Frantzi-aldean Adour ibaia du muga, eta Espaiña-aldean, Ebro; eta ezker-eskubi, Jaka'ko Portuak alde batetik, eta Balmaseda-lurrak bestetik.

Leen, ordea, ezker-eskubi, Pirene-mendiaren erdia, Lerida'raño, Euskalerrri zan —agintez eta izkuntzaz euskalerrri, euskaldun—; an daude, besteak beste, ainbeste toponimo euskaldun, euskal-kutsuko: adibidez eta batez ere, ororen ezagun, bi izen hibrido (latin-euskaldun) *Sobrarbe* (*Superarbe*) eta *Ribagortza* (*Ripa-kurtza*). Gai ontaz asko ta asko itz-egin bait liteke eta egin bear ere da.

Eta Ifar-aldera, berriz, an dago Toulous'etik goratxuago *Auch* esaten zaion lurralde ta erri ederra, antziñako Geografoak *Auski* (*Eusko* bezelatsa) esaten ziotena: *Augusta Auskiorum*; Pirene-mendiren alde ontatik *Ueska* bezela, beste aldetik *Auskia*, metatesis batez *Uaskia*, *Vaskia*...

Burdeos inguruko Garona ibaiak berak bezela, orrenbesteko euskal-usaia darioten izen toponimoak danak...

NOIZTASUN

Eta «romaniko» «erromanikoaren» noiztasunari buruz, zer esan? noiz bukatzen da erromanikoa eta asten da gotikoa? noiz bukatzen da pre-romanikoa eta asten da romanikoa?

Romanikoak gotikoarekin dituan mugak naiko lañotsuak dira; eta gauza bera gertatzen da pre-romanikoaren eta romanikoaren arteko mugakin ere: muga lañotsuak dirala.

Nolanai dala, ordea, gauza jakiña da Arte Gotikoaren aurretik Arte Erromaniko bat izan dala, arte-aldi bakoitza bere izaera ez-berdin eta diferenteakin: Arkitekturan bada, Eskulturaren bada, ez-berdin, diferente, elkarrengandik bestelako; dirala, Arkitekturan ateak eta leioak, pillareak eta arkoak, etab. eta Eskulturaren Santuen gorputzen egoera, eta aurpegiaren sentimena, eta jantziaren plegadizu-tolesturak etab. etab. Gauza jakiña bait da, Arteak garai batean forma batzuek erabiltzen dituala, eta urrengo garai batean beste forma batzuek.

«Eboluzioa» esaten zaio ariera orri: eboluzioa; pertsona bizi batengan «aziera» esan oi dana; urteen buruan ederki igertzen zaion aziera, azitzea, bañan urte gutxitan oso gutxi igertzen dana.

Arte-kontuan ere berdin: askotan ezin esan diteke, lan au, arte-lan au «oraindik erromanikoan dago» edo «oraintxe gotikora igaro da»...

Mugak lañotsu izan oi dira askotan. Laiñotsu, eta orregatik ezin esan garbi-garbi, «au romaniko da» eta «au pre-romaniko». Bañan beste askotan, muga oiek naiko garbi ageri izaten dira. Eta guk emen aipatuko ditugun kasuetan uste bait det, gauza au argi ta garbi ageriko dala.

ROMANIKOAREN PROBLEMATIKA

Artearen munduan ba da Arte-mueta bat —arte-giro bat, obeto— Romaniko esaten zaiona. Antziñatasunez errespetagarria, eta arte-balioz oso baliozosa. Gaurko gure gusturako, ez ain gustagarria. Guk Arte-kontuan iritzi-bide batzuek bait ditugu, eta Romanikoak beste batzuek.

Gure egunetako Arteak —Errenazimendua ezkeru batez ere— jo-muga bat du, eta jo-muga orren araueran kanon batzuek: gorputzaren edertasuna ta grazia, eta gorputzaren neurritasuna. Arte Romanikoaren jo-mugak, berriz, gorputzaren neurritasunari ainbesteko jaramonik egin gabe, pentsameriaren sinbolismoak dira batez ere; sinbolismoa, ideia-aren mataza; gorputzaren neurritasuna baño areago, irudien bidez zerbait adierazi-bearra, idea zerbait; egokitasunaren kanonari jaramonik egin gabe.

Ortan, Romanikoaren kanona, Greko ta Erromatarren kanonetik baxtar gelditzen da. Klasikoen Arteak, neurritasun ta proportzio-kanonaren barruan, indarraren eta graziaren jitea du bere apeta. Romanikoak, berriz, ideia-aren sinboloa maite du.

Grekoentzat eta Erromatarrentzat gorputz egokiaren neurria, beti ere «burua bederatzi aldiz» da; edo-ta, «burua» gorputzaren bederatziruaren».

Romanikoak, askotan, burua, pertsonaren gerri-aldea bezain aundi egiten du, pertsonaren nortasun aundia adierazteko: aunditasunaren sinbolo. Berdin baita eskua ere. Eskuak Klasikoentzat, gutxi gora beera, bere luzean, aurpegiaren luzeera du; bañoan Romanikoak, pertsonaren «eskubide» aundia adierazteko, eskua askotaz ere luzeagoa egin oi du.

Galdera bat orain:

- Nundik du Romanikoak bere sinbolo-apeta?
- Bere guraso Bisigotikotik, dudarik gabe.

ROMANIKOAREN EZAUGARRI ZERBAIT

Sinbolismo-kontu ori Eskulturan azaltzen da, batez ere. Romanikoaren Arkitekturan, beste berezitasun bat nabarmentzen da, begiratu batean: formaen biribiltasuna esan litekeana, Gotikoaren aldean batipat. Gotikoan Elizak, begiratu baterako, latzak dira, ertz-bizidunak, tontor zorrozturnak, atetean eta leioetan arko mutur-zorrotz.

Romanikoan, berriz, arko-uztaiak biribil-biribil, konpasak ematen dituan bezela; atek inbutu-antza, arko-askodun —ariko konzentriko—; eta Elizaen egitura guztia, biribil-goza; eta oso ikusgarri, abside-aldeak danbor-antza...

Romaniko orrek ba ditu bere urteak munduan.

Gure artean, Historiaz, moreri-ondotik asten da; Artez, Bisigotikoaren ondotik.

Moroen sarrerarekin esan bait liteke bukatzen dala Bisigotikoa. Bañoan Romanikoa ez da sortzen bereala. Tarte ortan ba da Arte-aldi bat, Mozarabe esaten zaiona. Bañoan itzaldi ontan gaur nik aipatu nai nukeana, «Arte Pre-romanikoa» da, osorik: dala Bisigotikoa, dala Mozarabea.

PRE-ROMANIKOA ETA KRISTAUTASUNAREN ASIERAK EUSKALERRIAN

— Bai al da Pre-romanikorik Euskalerrian?

Galdera onek zer-ikusi aundia du beste galdera batekin:

— Noiztikoa degu Euskalerrian Kristautasuna? Zenbatgarren gizaldian azaltzen da gure artean Kristau-Artea? Noiztikoak dira gure lenengo Elizak?

Orain eun urte, askoren artean uste izaten zan, gure Kristautasuna ia-ia Apostoluen denborakoa zala; ots, Santiago bera edo San Paulo Apostolua, emen auetan ibilli zirala, Kristau-Legea gure mendietan beren predikuz zabaltzen; eta ordutikoa dala gure Kristautasuna.

Bañan etorri zan beste garai bat —eta orain gizaldi-erdi etorri ere— gauzak oso beste aldera biurtu zirana; iritzi ausarta bat, euskaldunok oso berandu arte kristautu ez giñala ziona; oso berandu: nik ez dakit amar-amabigarren gizaldira arte-edo...

Berant-zale oietan bat, oso ezaguna, Pio Baroja nobelista izan da, euskaldunen jentiltasuna Erdi Aroraño luzatzen saiatu izan dana. Zer-nai jentil-kutsu, berantasun historiko baten argumentu bezela ego-airatzen zuana: Olentzeroak baziran, San Juan suak baziran... Bañan, Euskalerrian ikusten dan Romaniko-eskasia erabiltzen zuan bere argumenturik indartsuena bezela: «Bizkaian eta Gipuzkoa'n ez dagola Arte Romanikorik; gure kristautasuna «gotikoa» dala: gotiko-garaian, Erdi Aroan sartutakoa...».

Olakoxe gauzak entzunaz bizi giñan.

Bañan, gauzak ola zeudela, 1916'gn. urte-inguruan, gertakari bat gertatu zan gure artean. Araba-lurrean, Trebiño deritzan Lurraldean, larogei-bat Ermitaño Elizatxoak arkitzea. V, VI, VII gizaldiko Elizatxoak, Ermitañoen Elizatxoak. Ez Romaniko bakarrik, baita Pre-romaniko ere, dirala Bisigotiko, dirala Mozarabe.

Toparizu onekin erantzun bait leikio galdera arri: «Bai al da Euskalerrian Arte Romaniko-Pre-romanikorik?». — Bai. Eta, izan ere V, VI, VII gizaldiko Ermita-egituran. Arkaitzean eskuz egindako Koba-Ermitak. Eliza trogloditikoak...

Ez bait da, ordea, arritzeko gauza. Dokumentalki Pre-romanikoak dirala dakigun Elizatxoak, gure inguru-mari ontan trogloditikoak dira ain zuzen. Ala San Juan de la Peña esaten zaion Ermitategia Aragon'go Pirene-mendian; eta ari berekoa, Haro-inguruko San Felizes deritzan Koba-Elizatxoa Errioxa'n; eta zer esanik ez Distertzio-mendietako San Millán'en Koba-Eliza Errioxa'n bertan... Albelda'ko Ermitategi ikusgarriez gañera...

ZAARTASUN

Aurrera jarraitu baño leenago, ikustagun zer-nolako zaartasuna dan Ermita oiena: V-VI gizaldikoa. Gauza garbia da. Ermitatasunaren historia-tik garbi atera ditek.

Ermitatasuna, Elizaren Historian, gaur «Fraidetasuna» esan dezakegun Kristau-biziera da. Elizaren asiera-asieratik izan-dako biziera. Bañan V gizaldian San Pakomio'k eta San Benito'k sortutako Monastierarekin galdu zan biziera.

Eta gauza ori nola gertatu zan jakiteko, ikus dezagun, gai ontan jakintsu diranak diotena. Aipa dezagun, Alemania'ko Beneditar Dom Esteban Hilspisch'ek, bere San Benito'ren Bizitzan diona. Onela dio:

«Lenengo «Monakoak» Ermitañoak izan ziran. Urte askoz, Ermitañoen biziera izan zan Elizaren Historian Kristau-izaerarik gorengoena: Ebanjelioko Kontseillu-biziera».

«San Antonio - erri xumeak «San Anton» esaten diona, da, uste danez, 300 urte-inguruan Ermitañoen biziera sortu zunana. Biziera au bereala zabaldu zan Kristaudi guztian zear, eta oso arrera ona egin zitzaion kristau guztien artean». (Baita gure artean ere, ageri danez).

«Ermitañoak bakarka, oso bakarka bizi oi ziran, bakoitza bere txabolatxoan —bakoitza bere kobatxoan—; bañan beti ere txabolatxoak eta kobatxoak elkarren inguruan. Elkarren ejemplo on eta eredutasunez baliatzen ziran, santutasunerako bidean. Ejemplo onez, eta baita elkarrekiko jardun ta jolas zerutarrez ere. Ejipto-aldean olako Ermitak millaka ziran».

«Bañan bereala igaro ziran, Ermitaño-bizieratik «Zenobita» biziera-ra».

«Zenobita-biziera elkarrekiko biziera zan: biziera berria (ori esan nai bait du «zeno» edo-ta «kainos» itzak: «biziera berri»)».

«San Pakomio bat izan zan biziera berri ori sortu zuana: Ermitañoak, beren bakarkako bizitza utzita, gidari baten mendean elkarrekin, tellape berean bizi izateko era berria: gidari «aita» baten mendean bizi, alegia... San Pakomio izan zan, monakoak alkarrekin bizi izateko biziera sortu zuana».

Eta San Benito'ren Bizitzaren idaz-lanean, gure A. Beneditarrek onela jarraitzen du: «Monje-izaera ori bereala zabaldu zan Kristaudi guztian. Sortaldetik Sartaldera berealako batean. V GIZALDIRAKO AZALTZEN DA GALIAN, LERINS'EKO MONASTEGIA, SARTALDEAN ZAN MONASTEGIRIK SONATUENA».

«Irlanda'n ere Monastegiak eta Monjeak itzal aundia dute Elizaren barruan, eta baita kristau-bizitza arruntean ere... itxasoan Ugarte-islak, eta lur-barruan aitzarte bildurgarriak eta arkaitz-zuloak betetzen dira Monastegiz; eta arrapazka biltzen dira leku aietara Monako-jendeak»,

Ola mintzatzen da Dom Esteban Hilpisch, bere San Benito'ren bizitzan.

Eta, gauzak ola izanik, ez bait da bat-ere arritzeko, leenago Ermitañoak bezela, gero San Benito'ren Monjeak ere gure alderdi auetara - aitzar-

te ta arkaitz-billa oso garaiz iritxiak izatea, VIII gizaldian bertan, gizaldi artako Kordoba'tar San Eulogio'k esaten digun bezela, Leire'ko ta Urdaspal'ko ta Siresa'ko Monastegiaz mintzatzen danean.

EJIPTO'TIK ETA TEBAIDA'TIK TREBIÑO'RA

Ejipto'ko ta Tebaida'ko Eremitismoaren antziñatasuna ikusi degun ez-kero, ikustagun orain gure Trebiño'ko Kobak duten «eremitismotasuna», gure Trebiño'ko Kobak, benetako Eremitorioak, benetako Ermitañoen Ermitak dirala, alegia. Ermita jatorrak, Ejipto'koak bezain jatorrak, Tebaida'koak bezain jatorrak, San Benito ta San Pakomio baño leenagoko Ermitañoen bizi-lekuak, eta aietatik zenbait, Elizatxoak, Ermitañoak V-VI gizaldian beren Meza ematen zuten eta, beren Salmoak kantari, Jauna goratzen zuten Ermita jatorrak... beti ere gogoan eukirik, Trebiño Euskalerrri jator-jatorra dala.

Trebiño, Araba-lurra da. Gaur Burgos'ko juridizioan dago; bañan juridizio-kontu ori, gizonak egindako gauza da, eta, egin ere, «auskalo» nola egiña, aspaldi xamarreko Erdi Aroan. Bañan gauza oek, gure Jaunak gizonak ez bezela egin zituanez, Trebiño Araba-lur jatorra da, Araba'ren biotzean dagon lurra. Ballada. Bi mendi-kateen erdian dagon ballada; karaitzezko bi Mendi-kateen erdian: ifarraldetik Urbasa'ko ta Entzia'ko Mendi-katea; eta ego-aldetik «Kantabria'ko» deritzan Mendi-katea. Bi kate oiek karaitz bezela, Trebiño'ko Izkiz deritzan Mendi-katea, ondar-arrizko bixkar apalez osotutako Mendi-katea da. Ondar-arrizko izate orrek eman bait dio Trebiño'ko Izkiz'i Ermitagintzarako errextasun ori: mallu-koxkor batekin eskuz egindako koba-zuloak egiteko errextasun ori.

Urbasa'n eta Entzia'n, eta berdin baita Kantabria'ko karaitzezko Mendi-katean ba dira berezko Koba-zuloak; bañan Izkiz'ko ondar-arrizko mendian ez da berezko koba-zulo jatorrik, bañan bai, eskuz egindako Kobak egiteko errextasun; olako arkaitzean mallutxo bat naikoa bait da ondar-arrizko burkail polit batean poliki-poliki Koba bat egiteko...

Olaxe egindako Kobaz aberasturik dago Izkiz'ko mendi-kate ori, Nafarro-mugan Markiniz'tik asita, Burgos'ko mugan, Miranda-aldean, Korro ta Pinedo'raño guztian; bai bait dira larogeitan pasatuak, batzuek aundi-xeago, besteak txikixeaga, bañan danak noizpait norbaitzuek an bizi izandako siñalerik argi ta garbienakin... Eta, esan bezela, koba aietan dozena ta erdi, Elizatxoak izandako siñalerik argienakin...

KEXA

Dixkurri dezagun pixka bat, gauza guzti oien aurrean.

Gauza guzti auen aurrean, garbi dago, Trebiño'ko Kobeak, Ejipto'ko Ermitañoen Ermitak bezelaxe, Ermitañoak bizi izandako Ermitak dirala. Orain bada: Ejipto'koak IV ta V gizaldikoak baldin badira, zergatik ez Trebiño'koak?

Ori da, gauzaren beraren aurrean edozeini otu leikion ateraldia. Ateraldi jatorra...

Orain arte inork ez duala esan olako konturik? Ori beste kontu bat da. Eta ez lenengoa. Beste gauza askotan ere gauza bera gertatu izan zaigu euskaldunoi. Bertsolariarekin ere, adibidez, gauza bera gertatu zitzaigun. Bertsolaritza dan bezain fenomeno arrigarria izanik, ala ere, gizaldi osoak igaro bear izan dute, fenomeno arrigarri orri bere garrantzia aitortu arte.

Trebiño'ko Ermitañoekin ere gauza bera gertatzen da. Aipatu ta estudiatu bear zituztenak, ez zituztela, ez estudiatu, eta ezta aipatu ere.

BISIGOTIKOTASUNA

«Inork ez dituala ez estudiatu, ez aipatu» esan degu; bañan esaera ori ez da oso-oso egia. Izan da norbait, gauza ori aipatu eta naiko estudiatu duanik gure artean: Don Jose Migel Barandiaran. Eta oso garaiz aipatu ere: orain irurogei urtetzar: 1917'gn urtean.

Bañan gure gauza askorekin gertatu izan dana bera, gertatu zan orduan ere: euskaldunen gauzak beti ere sospetxerian artzen dirala.

Ataundarra ta biok ibilli giñan gu gauza artan. Orain irurogei urte.

1917'gn. urte artan, Gasteiz'ko Seminarioan Ikastaroko lanak amaitu genituanean, —nik Euskerazko ikasleen azterketak, eta berak Fisikakoenak— etxera joan bearrean, Araba'ko baxtar aiek ikustatu bear genituala, Trebiño-alde artara joan giñan. Eta an, Villafria'n ostatuz geundelarik, inguru-mari artako Koba aietan ibilli giñan... gauza prehistorikoak zirala-koan —orduan dana prehistoriko iduritzen zitzaigun—.

Urte artan bertan, urrengo Ikastaroaren Asierako Itzaldian, Seminarioan, Don Jose Migel'ek aditzera eman zituan gure orduko ibilleraen berriak; eta baita denbora berean Zaragoza'ko «Boletín de la Sociedad Aragonesa de Ciencias Naturales» dalakoan argitaldu ere gauza bera.

Berri aiek jakin zituzten jakintsuren batzuek —kanpotarrak geienak— eman zuten bakoitzak bere iritzia gauzari buruz; geienak prehistori-kutsuak ezarriaz, neolitiko dala, eneolitiko dala, edo gutxienez erromatarren garai-ko kutsuak.

Urte batzuren buruan, 1921'gn. inguruan, Don Jose Migel bera izan zan, kristau kutsuko zerbaiten susmoa artu ziena.

Gaur ba dakigu garbi; Gasteiz'ko «Congreso de Arte Paleo-cristiano'ko Batzarkideak erabakirik utzi zuten, Koba aiek garbi-garbi Elizatxo Bisigotikoak dirala. BISIGOTIKOAK.

KOBEAK ZER-NOLA. LURRALDEAN BERTAN

Egin ditzagun deskripziotxo batzuek. Ikus ditzagun gauzak beren lekuan.

Bi puntu aukeratuko ditugu ortarako; puntu nabarmentxuenak: Laño'ko Ballada, eta Faido'n gaur oraindik Ermita irauten duan Andra Mari Elizatxoa.

Laño Ballada bat da, ez aundia; bi mendixkaen erdian; errekatxo bat erdian, eta gari-soroak errekaen bi aldeetan.

Bi aldetako mendixkak, ondar-arritzkoak, areniskak, dira —Izkiz mendi luzea bezela. Nunean-nunean orma-gisan zut edo taluzean, ondar-arritzko trozu ederrak, soil eta gorri; eta trozu gorri aietan, salbo-ta erleen aberaska iduri, ate edo leio-antzeko zuloak eta zuloak... Zulo bakoitza, leen, pre-romaniko-garaian, Ermita izana.

Faido'n mendiak, trozu zabal ez baño, ondar-arritzko bizkargune aundi bat du; eta bizkargune artan dago egiña, gaur oraindik Santutegi Elizatxo irauten duan bizi-leku ederra. Gaur dagonez, Errioxa'ko San Millan'en zerbait antza du: barru-barruan arrian eskuz egindako zuloa, Elizatxo apaiña; bañan kanpo-aldetik, argin-lanezko eraxkun osagarria, arrizko orma, ate eta leioakin...

Barrutik, naiz Laño'ko batzuek, naiz Faido'ko au, benetako Ermitak izanak dira; kuadrilatero-izaera luzexka dute, Sortaldetik Sartaldera metro batzuek luze; Sortaldeko Orman, labe-antzeko zuloguneak, goia sapaï biribil, eta beia xapal, Meza emateko Aldare, bee xapalean zulo sakon-unetxo bat dutela, an, oitura dan bezela, Santuen Errelikiak ipintzeko.

Lurrean beti ere, an bizi izandako Ermitañoen il-obi luzexkak —sorbalda-aldera zabalago, oin-aldera estu—.

Ermitaren ezker-orman, beti ere, gela txiki bat Ermitañoaren lotarako.

Sarrerako atea ixteko ere, atearen bi aldeetan, alako kanaletxo bat, kanal aietan makil-esia egiteko erakoa... Ateaz gañera, askotan, leiotxo bat goratxoago, beti idekia, barrua orritu eta aize-berritzeko...

Faido'n oraindik aberatsagoa da gauza.

Ezker-orma-aldean bi gela: bata, Ermitañoaren etzandegirako, eta bestea, Bataio-Pontearantzako - Elizatxoa Bataio-leku izan zan señaleari—.

Eta ortaz gañera, Aldarearen aurrez-aurre, beste aldean, Korutxo bateko, naiko ikusgarria, Liturgi-lanak osotuago egiteko-edo; Salmoen kanturako-ta alegia; Korutxoaren lurra bera, gañerako lurra baño goratxuago. Dana arkaitz bizian, dana arrigarri.

Gaur, leengo labe-itxurako Aldarea, beste Aldare batek estaltzen du: arrizko Erretaula barroko batek, arrizko irudi gotikoa —Andra Mari exeria— erdi-erdian duala.

Olakoxeak dira, eredu bezela aukeratu ditugun, Laño'ko ta Faido'ko Ermitatxoak. Olaxe ikusi genituan, orain irurogei urte Don Jose Migel'ek eta biok.

Bañan, Laño'z ta Faido'z gañera, beste leku geiagotan ere ba ziran ta ba dira, Araba-alde artan, beste Ermita geiago ere: dala Markiniz'en, dala Albaina'n, dala Baldegobia'ko Pinedo'n eta Korro'n.

Leen esan degu, Unibertsidadeetako Katedratikoak ez diotela gauza oni bear bezelako garrantziarik aitortu. Bañan baita, esan ere, esan degu, ori ez dala egia oso-oso.

Izan ere, 1921 ondoren, Frantzia'ko Unibertsitario bik —Cabré batek eta Abbate Breuil batek—, jardun zuten gauza au aztertzen, eta, eman ere, eman zuten beren iritzia: Cabre'k, gauza neolitikoak dirala, eta Breuil'ek Erromatarren garaikoak dirala. Eta gure aldetik, berriz, Dr. Eguren'ek, eneolitikoak-edo dirala.

Bañan, diranak dirala eta nolana dala, andik laister samar, Dr. Arantzadi'k eta Dr. Eguren'ek eta Don Jose Migel'ek berak egin zuten alkarrekin lurralde aietara bisita zeatz bat, eta larogeita zazpi (87) olako Ermita zenbatu zituzten eremu guzi artan, Markiniz-Arluzea'tik asita, Baldegobia'ko Tobillas'eraño.

GAUZAK ARGITZEN

Gauza au erdi-illean gelditu zan, gerra etorri zanean. Gerrak iraun zuan guztian D. Jose Migel desterruan bizi izan bait genduan, emengo gauzai jaramonik egiteko biderik bat-ere gabe; bera kanpoan bizi zalako, bañan baita olako gaiak ukitzeko girorik emen etzeukalako ere.

Ala ere, beste batzurentzat etzegon orrenbesteko eragozpenik; eta izan zan norbait, gauza au —Tربیño'ko Koba-kontua, alegia— dantzatu zuana, eta Erroma'tik dantzatu ere: Frantzisko Iñigez Almetx; ark idatzi zuan Erroma'ko Errebista batean *Algunos Problemas de las viejas Iglesias Españolas* izeneko lantxo bat; eta lan artan au irakurtzen da: «¿De qué fecha es todo esto? Si vemos solamente las plantas de las Iglesias —Kobaeta-ko Eliza aiek, alegia— la contestación es obvia: VISIGODA». Erantzuna bidezkoa da: «Eliza oiek, bisigotikoak dira».

Don Jose Migel'ek, olako testigantza eder batekin pozturik, onela idatzi zuan gero batean Gasteiz'ko «Boletín Sancho el Sabio»n (1966-7, tom. X): «Iñigo Almetx'ek dion ori egia gertatzen dalarik, Araba-lurrean ba genituan bisigotiko-garaian Ermitañotegi ondo osotuak, beren Elizatxo (askotan bikote), beren bizi-leku ta beren il-obi ta gañerako osagarri guztia-kin».

Eta ari orri berorri jarraituaz, onela zion gure ataundarrak: «Ba ditugu, izan ere, larogeita zazpi (87) Koba, eta aietatik 13, 14 Elizatxoak, beste

zenbait Eliza bisigotikoen antz-antzekoak. Batzuek absideko Aldarearentzat, zaldi-perraren egiturako zulo apaiña bait dute, eta Aldarean mai-antzerazola xapals, eta zolaren erdian Errelikiak ipintzeko txulo-unea, eta Aldarea bera, beti ere, Sortalde-aldeko Orman kokatua...».

«Geiago oraindik: geurok ikusi eta kopiatu ere egin bait ditugu idazkun eta marrazki ibisigotikoak? Faido'n, Krutziaga'ko goiko Koban». «Gauza oiek —jarraitzen du Don Jose Migel'ek— nai-ta-ez, bisigotikoak bear dute izan, eta Araba-lurrean ausarki zabaldurik arkitzen ditugu, asi Arluzea'tik eta Tobillas'eraño, garai artan emen oietan zenobita-bakartegiak izan genituanaren señaile ta testigu argi».

Azken-itza gai ontan, Gasteiz'en orain urte batzuek izandako «*Congreso Paleo-cristiano*» ko batzarkideak, gauzak beren lekuan ikusi ondoren esan dutena da: Garbi-garbi, Elizatxo Bisigotikoak dirala.

BESTE GEIAGOREN ANTZ-ANTZEKO

Orain, gauza onen geigarri ta osagarri eder, esan dezagun:

1) Italia'n, San Benitoren jaiot-erritik ez urruti, Nursia'n, mendi azkar batean ageri diran, eskuz egindako Kobak, gure oien antz-antzekoak dirala: mendi, azkar goi-gorean, penditiz-penditzean eskuz egindako Koba ez txikiak, beren ate ta leio, dana gureen teknika berean egindakoak, San Benito bera, V gizaldian «Monastegi-fundatzalle» izan baño leen, an Ermitaño bizi izandakoak;

2) Eta, besteak beste, teknika berekoa dala, baita, Soria'n gure San Prudentzio armentiarra, San Saturio'rekin, sei-zazpigarren gizaldian Ermitaño bizi izandako Koba ikusgarria, erdi jator, erdi eskuzkoa ere; teknika berekoa;

3) Eta berdin baita, antz-antzekoa, Bartzelona'n, oraingo Katedralaren azpiko Eliza Bisigotikoa ere, labetxo-antzeko bere Aldare tipikoarekin, dana V, VI, VII gizaldiko gauza garbi-garbi...

ESKUZ EGINDAKO KOBATATIK, BEREZKO KOBATARA

Bañan zerbait esan bearrik izango dezute ordu ontan: «Tربیño'n, baietz —Araba'ko lurralde berezi artan, bai—; bañan gañerako Euskalerrian ez dagola olakorik; eta, beragatik, leen aipatu degun, Kobaetatik artutako, Kristautasunaren zabalkunde-argumentua ezin luza dezakegula gañerako Euskalerrira: konkretuki, Gipuzkoa'ra eta Bizkai'ra»...

Ikustagun orain argumentu au. Ez bait da, dirudian bezain sendoa. Itz bitan ikusiko degu.

«Trebiño'n bezela-bezelako Kobarik ez dagola, ez Gipuzkoa'n, ez Bizkai'an? Ezetz, esango degu, ez dagola. Bañan bezela-bezelakorik ez dagon arren, *antzekoak*, bai. Bai Gipuzkoa'n, bai Bizkai'an. Ez dira berdin-berdiñak, ez bait dira eskuz egiñak; bañan ezta bearrik ere; berezko jatorrak ba diran lekuan, ez bait da eskuz egindakoaren bearrik, Kobak orduan zuten eginkizunerako: ermitaño-bizitza egiteko, alegia. Berezko koba jatorrak arkitzen dituan Esmitañoak, ez dauka eskuz egiten ari bearrik.

Gauza onen argigarri ta oñarri, berezko zenbait Kobaen izenak berak dira. Koba oiek Santuen izenekoak dira. Eta zergatik Santuen izenekoak, Santuren bat —Santu Ermitañoen bat— an bizi izan dalako baizik?...

«Santuen izenekoak» esan degu. Eta nolako Santu! Santurik zaarrenak: dala San Kiliz, dala San Tirso, dala San Roman; dala Sandrati, dala Sandailli, dala San Balerio, dala Santi Mamiñe, dala Zipirio... Santuen izeneko Kobak; Ermitaño Santuren batzuen bizi-leku izan ziran señale; alako norbait antziña an bizi izandako tradizio esaeraz ornitua askotan; ola, adibidez, Araoz'ko Arantzazu-mendietako Sandailli bat ...

Santurik zaareren izenekoak, gañera, esan degun bezela; San Tirso, adibidez, eta San Roman, eta San Killiz edo San Kiriko; eta zer esanik ez, *San Dailli* bat, ez bait dakigu, Santutegi erromatarreko zein Santuri dago-kion; eta ez Sandailli bakarrik, baita Santi Mamiñe bera ere, naiz-ta jakintsuren batzuek, San Mames dala esan —Santu zaar-zarretakoa bera ere— ez bait daki iñork ere seguru, zein izan ditekean; eta gauza bera *Sandrati* esan oi dana, —San Adrian, alegia— «Santa Tri» dala ere esan oi bait dute norbaitzuek, eta *Trintate* bera izango ez ote dan; nolanai dala, gauza naasia, zaartasunak eman oi duan naasitasunez.

Gai ontan, ain zuzen, ba degu guk irizpide bat —Santu-izenen antziñatasuna neurtzeko irizpide bat—. Eta irizpide ortan, gaurko Santuak «San» batekin esan oi diran bezela, leenagokoak «Santi»rekin esan oi ziran —*Santiyago*, adibidez, edo *Santikurutz*, edo *Santi Mamiñe*—. Eta zaarragoak «Done»rekin —*Donibane*, adibidez, *Doneztebe* edo *Donamaria*—. Bañan bai bait da beste malla bat, zaarragokoa oraindik, ez *San*, ez *Santi*, ez *Done* gabekoa, izena soil-soillik baizik, *Bixintxo*, adibidez, edo *Maalena*, edo *Saturdi* edo *Sazernin*, geienez ere —*txo* bat ondotik dakarrela, *Bixintxo* bezala (*Vicentejo*).

Ain zuzen, gure Kobatako Santu baten izena, ezer gabe, bera soil-soillik arkitzen bait da, ¿nun uste dezute? Tolosa-iguruko Zipirio deritzan Koba-ermitan. Ez bait da esaten *San Zipirio*, *Zipirio* soillik baizik, Zaldibia'n *Saturdi* soillik esaten zaion bezela San Saturnino'ri... Ots! dana zaar-kutsu, zaar arritu...

Orain, nere irizpide ortatik, ondoren au sortzen da zuzen-zuzen: Trebiño Araba'ko Kobak Ermitaño-kobak diran bezelaxe, Gipuzkoa-barruko ta Bizkai-barruko Santu izeneko berezko Koba jatorrak ere, Ermitaño-kobak dirala, aiek bezain zaar-arrituak auek ere: V, VI, VII gizaldikoak...

SANDAILLI'REN LEYENDA

Eta Koba oietako batean arkitzen degun Leyenda aipatu degun ezke-
ro, entzun dezagun Leyenda bera, Araba'n esan oi dan bezela.

Sandailli, Narbaja Araba'ko erri koxkor bateko semea zan. Mutil ona benetan. Kristau zintzoa. Narbaja'ko gañerako jendea ez bezelakoa.

Eta, ain zintzoa zalako, errian tirria —esan oi dan bezela— «tirria artu zioten». Eta, alako batean arrika eraso zioten; eta, gizagajoak erritik iges-egin bear izan zuan. Eta lasterka-lasterka joanda, koba-zulo batean ezku-tatu zan —gaur, aren izenez, «Sandailli» deritzan Koban. Eta, andik aurre-ra antxe bizi izan zan, eta antxe santu egin, Ermitaño bizitzan —«faer»— —bizitzan, an esan oi dan bezela— «faer» edo «fader»-bizitza latz-latzean.

Ori da «Sandailli»ren Leyenda. Zaar-usai aundia darion Leyenda poli-ta.

Eta, gauza onen edergarri, esaten bait da beste detalle jakingarri au ere: Narbaja'ko jendeak beren erritar Sandailli'ri arrika eman zioten arriak —arri biribillak— oraindikan ere ikusten dirala lurrean Araba'ko lurralde artan: Geologo ta Paleontologo-jendeak ain ezagunak dituzten *Mikraster* fosil biribillak, alegia salbo-ta, berdin esan oi bait da, Santiago-mendiko txirlazko *Pekten* fosillak, Santiago Apostoloak an zebillela, bere oñez uki-tutako arkaitzean utzi zituan oñatzak, oin-markak, dirala...

KOBAZ GAÑERA, ELIZARIK?

Bañan, galde ta galde, norbaitek galde lezake, ea ez ote dagon, egon, antziñate aundi artako beste arrastorik, Elizarik, adibidez, Elizatxo zaar-zaarik, Elizatxo Bisigotikorik.

Eta baietz erantzungo diogu; baietz, ba dagola. Santu izeneko Kobaez gaiñera, inguru aietan ba ditugu gutxienez bi Eliza, «Pre-romaniko» garbi-garbi esan ditezkeanak: Astigarribia'ko Eliza, bere zaldi-perrazko leio ikusgarriarekin, eta Zaldueño'ko San Julian'en Ermita txukun ikusgar-ria, bere leio monolitiko politarekin; bi gauzatxo, beste Koba aien inguru-giroa ederki osotzen dutenak.

Bañan baita zerbait geiago ere. Bisigotiko-garaian Bataio Santua ema-teko erabiltzen zuten Kalizatxo bat, ain zuzen Bizkai'aren biotz-biotzean, Mañaria'n, arkitua, eta, berriz ere ain zuzen, Koba batean, berezko Koba jator batean...

Trebiño'ko Kobaen inguru-giroa asko ta ederki osatzen eta argitzen bait dute detalle oiek. Beste zenbait Folklore-detallek gauza argitzen eta osotzen duten bezela: San Julian'en Leyendak, adibidez; Leyenda oso zaar-kutsu aundikoa bait da bera ere: salbo-ta, geroko Teodosio Goñiko'k bezela, bere emazteaganako sospetzeria batez bere aita eta ama il zitualako Leyenda, San Julian'i ere egozten zaiona. Garai zaar aietako kutsu aundia ematen bait diote Zalduendo'ko Ermita xaar arri olako erromantzezko detalle ukigarriak...

Eta Teodosio Goñi'ko aipatu degun ezker, gogora dezagun baita Aralar'ko San Migel'en Elizaren antziñatasun aundia.

Ez degu esango Eliza Bisigotikoa danik; bañan bai Pre-romanikoa; Eliza Karolinjioa; bai bait da zerbait, antziñatasunez: orain milla ta berreun urte euskaldunok jipoia eman genion, frankoen Imperator aundi arren egunetakoa izatea, alegia; eta ez Nafarro-Erribera, nafar-mendi-mendian baizik, ia-ia Gipuzkoa'koan...

Eta ontan bukatu nai det nere itzaldi onen lenengo zatia: Pre-romani-koari dagokiona.

II ZATIA

ROMANIKO-GOTIKO.

Pre-romanikoaren ondoren, Romanikoa dator. Artearen izaera berri bat.

Pre-romanikoa, Sortaldean, Bizantinoa deritza; eta Sartaldean —gure artean—, Bisigotikoa. Bañan, gure artean, Bisigotikoaz gañera aipatzen da baita beste Pre-romaniko bat ere: Mozarabea. Biak dira Pre-romaniko.

Bisigotikoa Moroen etorrerarekin bukatzen da gure artean; bañan Mozarabeak jarraitzen dualarik puska batean gero ta gerora.

EZAGUNGARRIAK

Bizantinoaren ezagungarriak, bi auek gogoraziko ditugu: biok nabarmen-nabarmenak: 1) Sapai- *Kupula* biribilla Elizaren egituran, eta 2) *Mosaikozko* iduriak Elizen barrunbeko edergarrietan.

Bisigotikoaren ezagungarri, berriz, iru oiek: 1) «trogloditismoa»; Kobatako Artea, dala berezko Koba, dala eskuz egindakoa; (Trebiño'ko Kobak); eta 2) *zaldi-perrazko* arkoa, ate ta leioetan (Astigarribia'ko leioa); eta 3) *leio monolitikoak* (Zalduendo'ko leio monolitikoa). Eta oietaz gañera, Bisigotikoan eta Mozarabeen ere azaltzen diran il-obi *antropomorfoak* (Astigarribia'n eta Pinedo'n eta San Formerio'n)...

ROMANIKOAREN PROBLEMATIKA

Eskultura Romanikoa, antziñatasunez oso errespetagarria dala esan degu, eta arte-balioz, oso baliosoa. Eta oso sinbolo-zalea dala.

Romanikoak bere sinbolo-gaiak Testamentu Zaarretik eta Testamentu Berritik artzen ditu: bi Testamentuetako pasadizuetatik; Adan eta Eba'ren pasadizutik, adibidez, gure Salbamenaren sinbolismoa, edo Errege Magoen pasadizutik Kristo Erregeren sinbolismoa...

Eta olako pasadizuak, errealismorik ukigarrienean, Elizako pillareen buruteetan —kapiteletan— kokatzen ditu, bai Elizaren ateetato pillareetan, bai Elizaren barruko pillare aundiagoen burute apain ederretan..

ROMANIKOAREN EZAUGARRIAK

Sinbolismo-apetaz gañera, ba ditu romanikoak beste ezaugarri batzuek ere, oso nabarmenak, sinbolismoa baña axalekoagoak, bañan oso tipikoak.

Bata, irudietan eta edergarrietan, simetria ta ekilibrioa esan dezakeguna. Gorputzaren egoeran, gorputza beti ere, Ama Birjiña bada, eseria; zut gerriera; bi belaunak, elkarren pare; Aurra, erdi-erdian.

Eta bigarren, jantziaren tolesak, ugari-ugariak, bañan elkarren sime-trikoak berak ere, ez naasiak, barrokoan bezela.

Eta irugarren, jantziak oso gorputzari itxasiak —bustiak bait lirean— gorputz-atalai itxasiak, aztal eta iztarrak nabarmen, bixkarguneak biritil...

Gai ontan, Aralar'ko San Migel'en Erretaula ezagun-ezaguna, eredu bikain bait degu...

ROMANIKOA ARKITEKTURAN

Arkitekturan, Romanikoak gauza bat du oso nabarmena: leen ere esan degu-ta estiloaren, begiratu baterako leuntasun ta gozotasuna. (Gotikoa, latz, zorrotz. Romanikoa, leun).

Bi elementuk osotzen dute, begiratu bateko gozo-sentimen ori:

- 1) Elizaren barruan, sapaia bobeda apalak; eta
- 2) Elizaren kanpo-aldean, abside biribillak.

Ateak eta leioak, arkodun. Arko jator, biribil, ez-puntadun.

Leioak, txiki. Ormak, lodi. Kontrafuerterik ez. Sarrerako atea, arko-askodun —arke konzentriko— barrurago-ta estuago, inbutu-antza...

Geroko Gotikoaren aldean, gauza bat du nabarmen Romanikoak: sapaia, tunel-sapaia duala: tunel xume, ez gurutzetua, gero Gotikoak egingo duan bezela. (Gotikoak, gurutzetua; Romanikoak, xume, xuxen)... Naiz-ta, gerora, Romanikoan ere sapaia gurutzetuak sortu, Elizak berak gurutze-

tuak egiten diranean... Orduan sortzen bait da munduan sapaï gotiko «gurutzetua», bere zañakin, nerbioakin, zain-gurutzetu-joku apañakin...

Ortarako kontrafuerte asko. Kontrafuerte ta arbotante. Ia ormarik ez. Ia dana kontrafuerte ta pilastra. Dana, leio ta leio. Dana bidriera —kolorezko bidriera—.

Kontrafuerte-joku onengatik du, Gotikoak azala latz. Romanikoa, kontraferterik gabe, dana gozo, dana perekagarri.

Ukigarri, batez ere, abside danbolin-antza, biribilla...

ERROMANIKOA, NUN ZER

Romanikoaren «zertasuna» apur bat ikusi degun ezkeru, ikustagun zer ta nolako Romanikoa degun Euskalerrian —beti ere, axal-axaletik baizik, Pre-romanikoa baño ezagunagoa danez, eta liburuetan ikasten erreza go—.

Romanikoa Euskalerrian, ugaria da Nafarroa'n eta Araba'n. Nafarroan ugaria eta aundi-ederra; Araba'n naiko ugaria; ez, ordea, aundi-ederra, bañan bai polit eta txukun eta jator-jator.

Gipuzkoa'n eta Bizkai'an Erromanikotasunak bere izaera berezia da. Ez aundi-eder, ez ugari. Dantxoa, apal, bañan ondo zabaldurik, Bizkai'an bezela Gipuzkoa'n. Eliza osorik ez; Ermita ta Elizatxoak Bizkai'an bai, bat edo beste; Gipuzko'an ez, zatiak —leio ta atea— baizik. Leen Eliza oso izandakoak; gaur zati ta puska geldituak.

Itzaldi onen asieran esan bait degu, nola ta zergatik, leen osoak zirnak, orain troxu ta puska bilakatzen diran. Gotiko-garaian Eliza aundiagoak egiteko, leengo Romaniko zaar txikiak bota, eta Gotiko aundiak egin genituelako. Bañan, beti ere, aldian bein leengo Romanikoaren ondakin eta muestra zerbait gelditzen zalarik.

Nafarroa'ko Eliza Romaniko aundi-ederrak oso ezagunak dira. Leire ta Iratxe eta Irantzu, oso aipagarriak eta ezagunak dira Artearen Histori eta soro osoan. Mundu guztian ezagunak.

Eta, aien aurretiko bezela, Aralar'ko San Migel'en Eliza *Karolinjioa* ere. Danak oso ezagunak. X, XI, XII gizaldiko lanak.

Oien ondoan ipiñi bait liteke, baita, Aragoi-lurrean, bañan Nafarroa'ko Errege Santxo Aundi zeritzanak Loarre'n eraikitako erdi-Eliz, erdi-Gaztelu ikusgarri berezi-berezia. Eta, Eliz-Gazteluzko ari ortan bertan, Nafarroa jatorrean, Uxue'ko Eliz-Gaztelu romaniko ikusgarri ikusgarria, bere Andre Mari Romaniko oraindik ikusgarriagoarekin.

Araba aipatzekoan, beti ere gogoangarri dira bi Eliza, ez aundi, bañan bai txukun polit, Armentia'ko leen-leen Katedral izandako San Andres'en Eliza, eta leen Monastegi xuma izandako Estibaliz'ko Andra Maria'rena. Txukun eta apañak biak.

Eta aiekin batean, bere abside danbor-antzekodun, Markiñiz'ko San Juan'ena.

Eta aien ondoren, ainbeste ta ainbeste Elizatxo, Romaniko jator, Gasteiz'ko zelai ingurumarian zabalduak. Dana jator. Dala Elburgo'ko San Martin'ena, dala Alegria'ko Ayala'koa deritzana, dala Gazeo'ko pinturaduna etab. etab.

Eta oietaz gañera Eliz-zatiak nun-nai: dala ate, dala leio, dala abside; Lasarte'n adibidez, eta Matauko'n eta Ezkerekotxa'n etab. etab.

ROMANIKOA BIZKAI'AN

Bizkai'ko Romanikoa ez da ez aundi, ez ugari.

Bañan ba dira Bizkai'an Elizatxo Romaniko oso-osoak, Gipuzkoa'n ez bezela: San Pedro Abrisketa'ko bat Arrigoriaga'n, eta San Pelayo bat Bakio'n, eta San Migel bat Zumetxaga'n, eta San Roman, Muxika'n, San Torkuato Abadiano'n, eta Santa Luzia bat Yurre'n, eta Ibarra'koa Orozko'n; eta zenbait Elizetan zenbait troxu ta zati eder, ala Santurtze'ko San Jorge'n, eta Lemoniz'koan, eta San Pedro Mungia'koan, eta Fruniz'ko Salbatore'n; eta Arteaga'n, eta Kortezubi'n, eta, batez ere Santa Maria Galdakano'n; eta, txikiagoak baño, Barrika'n, Artzentaletan, Maruri'n, Sondika'n, Bolibar'en, Markina-Etxebarri'n, Arantzazu'n, eta Castillo-ta-Elexabeitia'n.

Agiri danez, Bizkai guztia'n zabaldurik, ezin esan bait liteke alderdi batean bakarrik, edo alderdi batean geienik eta besteetanbat-ere-ez, edo zerbait olako ez-berditasunik...

Bañan, gauza arrigarria; guzti oietan ez da bat bakarrik ere abside biribilla duanik; dianak abside xapala dute, Araba'ko Elizetan ez bezala; Araba'ko Elizetan —bai Armentia'n, bai Estibaliz'en, bai Markiniz'en absideak biribil danbor-antzekoak bait dira; eta berdin baita Nafarroa'ko Eliza aundi-ederretan ere.

Bizkai'an, ordea, bai Abrisketa'koan, bai Zumetxaga'koan, bai Bakio'koan, txapalak, berdiñak. Eta Bizkai'ko oien egitura zapala Irlanda-aldeko egitura ornen da: Irlanda-aldeetik etorritako moda... Ala dio, gai ontan maisu dan Gaya Nuño'k, XII gizaldian Irlanda-alde artatik onuntz etorritako Argin-maisuak ekarritako egitura ta moda dala, alegia... Gure Itxasaldeak, Ego-aldearekin baña Ifarraldearekin artu-eman geiago izan duan señaletan...

PRE-ROMANIKOA ERE BIZKAI'AN

Romanikoaz gañera Pre-Romaniko-apurrak ere arkitzen ditugu Bizkai'an.

San Pedro Abrisketa'koan.

Ermitaren sarrera-aldean, ate romanikoaz eta beste zik-zakdun greka batez gañera, losa zabal batean antziña-antziñako Gurutze Santu bat, bisigotiko-egiturakoa. Gurutzea; bi besoetatik Alfa ta Omega bi, txintxillik dituana, Burgos-Lara-lurrean, Quintanilla de las Viñas deritzan Monastegian dagon beste baten antz-antzekoa.

Elizatxo artan bertan, absidean ere bai beste bisigotiko-antzeko zerbait ageri bait da: leio-leiatilla estu bat, inguruan zaldi-perra-antzeko marrazki-dibujo ikusgarri-ikusgarri bat —erdibitua ezik— ageri duana.

Dana, ez Romaniko bakarrik, garbi-garbi Pre-romaniko jator baizik.

Ortaz gañera, bai Durango-Tabira'n, bai Zenarruza'n, bai Karrantza'ko Kolisa'n, zerbait apaingarri, zaldi-perra-antzeko ere ageri bait da, gauza onen osagarri.

Benetan gauza pixka; bañan naikoa, Bisigotiko-garaian emen auetan Eliza Bisigotikoak ba genituala aitorreratzeko.

Nolanai dala, or bait dago gañera Bizkai'ko gauza bezela, leen aipaturik daukagun, Mañaria'ko, Koba batean arkitutako Bataio-kaliza bisigotiko, gaur Bilbao'ko Museoa gordetzen dana.

IRUDI ROMANIKOAK BIZKAI'AN

Orain arte, Eliza Romanikoak bakarrik aipatu ditugu. Irudiak, imajinak, ez ditugu aipatu.

Ama Birjiñaren Irudi Romanikoak ere —Gotiko eder askoez gañera— ba dira Bizkai'an, gaur oraindik osorik iraun dutenak; beste olako asko ta asko galdu ondoren, oraindik osorik iraun dutenak.

Bat da batez ere, bere izaera politez aipatzea merezi duana: Lekeitio'ko «Antigua»koa.

Bañan, Lekeitio'koaz gañera, politez ain politak —gure guztoko politak— ez baño, Romaniko egituraz oso aipagarriak diranak, beste iru: Arantzazu'n bata, eta Galdakano'n eta Gaztelu-ta-Elexabeitia'n beste biak... Aurra erdi-erdian, eta soñekoaren tolesak bi aldetan simetriko-simetriko,

ROMANIKOA GIPUZKOA'N

Leen ere —Kristautasunaren Sarrera Euskalerrian aipatu degunean— esanik daukagu, Gipuzkoa'n Romanikozko Eliza osorik ez degula: ez aundirik, ez txikirik. Bañan leen izandako osoen puska ta zatiak, bai; Gipuzkoa guztian banaturik gañera. Dirala atear, dirala leioak; bañan atear batez ere. Eliza osorik ez, Bizkai'an bezela. Ezta Abside osorik ere; ez biribillik, Araba'n eta. Nafarroa'n bezela; ez zapalik ere, Bizkai'an bezela.

Bañan «deguntxo» Gipuzkoa guztian banatua, ez baztar batean baztartua.

Donosti-inguruan, Ernani'n, atea;

Pasai San Pedro'ri, atear;

Igeldo'n, bi leiotxo;

Urnietan, atea;

Eta errenkadan, Berastegi'n, Elduaie'n eta Berrobi'n, karaitzezko ate sendoak;

Tolosa'n, antziñako San Esteban'en Ermitakoa izana —gaur Bataio-Pontean dagona— ondar-arrizko ate apain-apaña;

Eta aren pareko beste apaña, Abaltzizketa'ko Elizako atea;

Ateak baita, Ugarte-Amezketan eta Santa Marina'n, eta Itxaso'n;

Eta Azkoitia'ko Ill-errian;

Eta Aretxabaleta'koan;

Eta Garagartzako Elizan;

Eta leiotxo txiki bat Bolibar-Ugazua'ko Torrearen barruan;

Eta iru bat leiotxo, Larriño'ko Eliz eta Abade-etxean...

Bañan, Elizaz urri ta zirtzil bagabiltza, irudi-kontuan ondo ornituak gabiltza Gipuzkoa'n. Ba ditugu bi, eredu bezela aipa litezkeanak: «Irun'go Andre Maria» («Junkaleko» esaten zaiona) seriosa-seriosa; eta Itziar'ko irripar-irripardun polit-polita.

Bi bakarrik, bañan biak benetan aipagarri. Araba'n bertan —ainbeste Eliza Romaniko dituan Araba'n— ez bait da bat-ere bi oien parekorik. Eztibalitz'koa bai... iñoiz eraberritua izan ez balitz; bañan orain dala irurogei urte, eraberritu bait zan; esku onez eraberritu, bañan beti ere «eraberritu»...

Itziar'koarentzat, gañera, zerbait esan bear berezirik bai bait dago: Erromaniko jator-jatorra izan arren, —Aurra erdi-erdi eukitzea eta gorputz guztiaren simetrikotasuna dago testigu— ala ere, aurpegiko irripar gozoa, oso gotikoa du; ez irudia bera gotikoa dalako, irripar ura «gotiko progresista» dalako baizik; urtez aurreratua, «progresista» ... Ain da irripar goxo nabarmena...

ILL-Obi antropomorfoak

Gure gauza guzti oien antziñatasun aundiaren ezaugarri ta siñale, ba da gure artean beste zerbait geiago ere: il-obien antropomorfo-egitura.

Ill-obi antropomorfoak gure artean oso bakanak dira: ale-ale batzuek. Bañan diranak, antziñatasun aundi baten siñale dira.

San Millan'go Eliz-atarian dauden zazpi edo zortzi «Infantes de Lara»enak esan oi diranak, oso ezagunak dira: arrizko bloke luzeak, beren arrizko tapa estalkiak. Barruko utsunea, buruarentzat biribil eta sorbalda-aldera zabal, eta oin-aldera estu...

San Millan'goak bisigotiko-bisigotikotzat jotzen dira.

Guk Gipuzkoa'n Astigarribia'n degu bat, Elizaren erdi-parean lurperaturik. Eta bakar aren laguntzalle bezela, Araba'n Pinedo'ko Koba batean, ez bat bakarrik, iru illaran baizik, elkarren ondo-ondoan.

Astigarribia'koa mozarabea dala esan nai bada ere, iru oiek zaarra-koak dira, bisigotiko jatorrak, inguruko Kobak bezela.

Olako beste ill-obi antropomorfo bat, Trebiño-lurrean, Argantzon-inguruan, San Formerio deritzan Ermita ederrean arkitzen degu, bertako arkaitz-arkaitzean egiña —ez arri-blokean— Pinedo'ko Kobean bezela...

GOTIKOA

Romanikoaz labur mintzatu bagera, Gotikoaz laburrago mintzatu-ko gera.

Pre-Romanikoaren aldean, Romanikoa ezaguna eta beragatik laburrago aipatzekoa dala esan degu. Romanikoaren aldean Gotikoa oraindik ezagunagoa da. Unibertsidadeetan dabilzanentzat naiko ezaguna, eta beragatik guk emen labur-labur aipatzekoa.

Ez gera, beraz, luze ariko Gotikoaren «Nun, zer?» eta deskripziotan. Gauzaren problematika bat edo beste aipatu besterik ez degu egingo: Gotikoaren problematika gure inguru-mari ontan. Eta konkretuki.

1) Gotikoaren problematika Iruñea'n eta Gasteitz'en, eta

2) «Gotiko euskalduna» edo «Euskaldun-gotikoa» deritzanaren problematika.

GOTIKOA IRUÑEA'N ETA GASTEITZ'EN

Gotikoz beterik dago Euskalerra guziaz; Gotikoz eta Errenazimenduz.

Gure Elizarik geienak, Gotikoak dira, edo-ta Gotikoz naastuak: Gotiko-Errenazimendu; Errenazimendu-Gotiko.

XVI Gizaldian, eta baita XVII'ean ere, gure Elizak, goiko sapaibobeda, gotikoa izan oi dute. (Donosti, Santa Maria'koak berak ere, Barroko-garrikoa izan arren, sapaibobeda du —eta ain ederki kokatua, euki ere!—).

Gotikoak gure artean luzaro iraun du. Errenazimendua etorrita gero ere Gotikoak irauten du emen. Iraute arrigarria!

Iraute-kontu ortaz gañera ere, Gotikoarekin gure artean gertatzen dana, oso gauza arrigarria da; Iruñea'n eta Gasteitz'en, ez dagola Gotikoa besterik; ez dagola Romanikoaren arrastorik.

— Nola ez dago Romanikorik?

Orra galdera bat, erantzuna merezi duana.

Galdera onen erantzuna, gure artean, edozeñek daki:

— Iruñea'n eta Gasteitz'en, bere garaian, izan zan naiko Romaniko; bañan, Gotikoa azaldu zanean, Romanikoa berealexe galdu zan, eta bere lekua Gotiko berriari utzi zion XIII gizaldia.

Geroztik Iruñea'n eta Gasteitz'en ez da Romanikorik, ez da Gotikoa besterik. Bañan arritzeko gauza: egun aietan beretan, naiz Iruñea'n, naiz Gasteitz'en inguru guztiak Romanikoz josiak jarraitzen zutela: zala Armentia ta Estibalitz Gasteitz-inguruan, zala Iratxe ta Irantzu Iruñea'ko inguruan.

KRISTAUTASUNAREN SARRERA BERRIZ ERE

Oar bat orain, aurrera jarraitu baño leen.

Barojatarren argumenari jarraituaz, Euskalerrian Romanikorik ez arkitzea, Kristautasuna geroko Gotiko-garaian sartu zalako señalear baldin bada, Iruñean eta Gasteitz'en Romanikorik azaltzen etzan garaian etzukean izan bear Kristautasunik; Iruñea'n eta Gasteitz'en Kristuatasuna Gotiko-garaian sartua izan bear zukean. Inguruko erri txikietan, bai; bañan bi Erri Nagusietan, ez. Inguruko Estella'n eta Armentia'n bai; bañan Iruñea'n eta Gasteitz'en, ez.

Historiaren legeak, ordea, ez bait dira ola. Kultura-berri-artze-kontuan, aurrerago dira, beti Erri Nagusiak, Erri txikiak baño; aurrerago ta leenago *civitas* dalakoa, *pagus* baño. Erri-Nagusitarrak kristaututa gero ere «pagus» tarrak jentil irauten zutelako sortu bait zan, jentillai «pagano» esateko oitura...

Itz bitan. Iruñea'n eta Gasteitz'en XIII gizaldian etzan Romanikorik; bañan ez, leen ere izan etzalako, ango kristauak, Romaniko zaarra bazartuta Gotiko berria artu zutelako baizik.

EUSKALDUN-GOTIKOA

Ikustagun gure Gotikoaren beste problematika: «Euskaldun-gotikoa» deritzanaren problematika.

Gipuzkoa'n eta Bizkai'an Elizarik geienak Gotikoak dirala, esan degu. Aietan ez gutxi, iru bandakoak dira: pillaredunak.

Iru bandako Elizetan, emendik kanpora, oso oitua da, aldameneko bandak bajutxiagoak izatea, erdikoa baño. Gure artean ez ain oitua. Gure artean oso oitua da, iru bandak berdiñak izatea. Eta orri esaten zaio «Euskaldun-gotikoa».

Iru banda ez-berdiñekoak ere ba ditugu: Gipuzkoa'n Getaria'koa eta Bizkai'an Lekeitio'koa: eder askoak biak; eta Mondragoe'koa, eta Oñati'koa, eta Donosti San Bizentekoa etab. etab.; bañan geienak iru banda berdiñekoak; eder askoak berak ere; Segura'koa, adibidez, eta Irun eta Ondarribia'koak, eta Errenteria'koa, eta Tolosa'koa, eta Ataun San Martin'goa; eta Zumarragakoa, eta Azpeiti-Azkoitikoak, eta Deba'koa eta Eibar'koa. Eta Gipuzkoa'n bezela berdin baita Bizkai'an ere...

Eta ontan bukatzen degu gaurko gure lana.